ZERUKO ARGIA

IDAZKOLA } OKENDO, 22
BANAKOLA } Telef. 26666

Donostia - Prezioa 2'50 pezeta - ASTEKARIA - 1964-Urrillak 18 - XXVII'garren urtea - 86'garren Zenbakia

# Lantegi Nagusiak Loiola'n

Bederatzigarren aldiz bildu dira Loiola'ko Santutegian, Nagusien arteko Gizarte-Ekintzakoak. Gipuzkoa'ko nagusiekin batera, Bilbo, Bartzelona ta Madrill'goak alkartu dira bertan, dagozkien arazoak aztartu ta erabakitzeko.

Lenbizi, Donosti'ko Apaizgaitegiko irakasle dan Alberdi'tar Errikardo jaunak itzegin zieten. Onek, lantegietako zuzendariak eta kristau-legeak erabilli zituan bere izketaldiko gai.

Urrengo Fernandez Pirla ta Santos Elespe, jesulagunak itzegin zuten. Fernando Bianchi, Fernando Guerrera ta Mario de Hoyos, apaizakere, bakoitzak bere arian, aitatu zituzten bildutakoei zegozkien gai garrantzitsuak.

Billerak mesede aundikoak eta bizi-biziak izan dira. Alkarizketa berotuaz, astindu dira n a g u s i arteko eginbearrak. Kristautasuna lantegi-arazoetan sartu dedin eta gure kristauizatea lotsagarri gelditu ez dakigun diru-arazoetan, bearrezkoak ziran alkar-ikuste ta billera auek.

# Bizkai'ko bideak obetzeko

## BIZKAIA'KO BIDEAK OBETZEKO

Subastan ateratzeko d i r a oraintxe ontzat emanak diran Bizkai'ko zenbait bideen berriztapen eta sendotzeak. Auek dira bideak:

Beasain'dik Durango'rakoa, 9.069.368,97 pezeta kostako dana.

Amorebieta'tik Bermeo'rakoa, 10.497.489,21 pezeta kostako dana.

Ta Bustos'tik Bilbo'rakoa, «Luyando-Arrankudia» aldean 7.697.618,15 kostako dana. Bide auek obetzeko lana guzira 27.284.618,33 pezeta kostatuko da.

## GAZTEIZ

## IKAS-ALDI BERRIA UNIBERSIDADEAN

Oraintxe iriki berria da Filosofi ta Elerti Ikas-aldia Gazteiz'en. Deusto'koaren lagun bezela sortu dute ta ogei bat nexka-mutil agertu ziran bertara.

Ikas-aldi au «Sancho el Sabio» Eralguntzaren aretoetan jarri dute.

## IRUN

## ZABALTZA YUGOESLAVIA'TIK ITZULEAN

Irun'go Zine-Zuzendari dan Jose Maria Zabaltza itzuli da Yugoeslavia'tik. An Espaiñi-Itali ta Yugoeslavi'ko jendearekin pelikula bat sortua du. Izena, «Las malditas pistolas de Dallas» du mintz orrek, eta Ipar-Ameriketako Sarkalde-girokoa da. Kosta ere, amabost milloi pezeta inguru egin da.

Pelikula orren kanpoko bistak Yugoeslavia, Austria ta Txekoslobakian artu ditu ta barrukoak Erroma'ko Cinecita etxean. Orain Madrill'era dijoa Carlos Serrano, zinegillearekin. An beste jelikula baten gertapenak egingo ditu. Mintz onek maite-giroa izango du gai, ta kanpoko bistak Irun'en artuko dituzte, datorren Azaroan asita.

Pelikula ortan lan egingo duten artistak, beste batzuen artean, Eusebio Escalante, Antonio Escales, Eduardo Uruñuela ta Maria Luisa Bertolini izango dira.

## ERROMA'N AITA JANSSENS ERIOTZA

Aita Janssens, Jesulagunen Jeneral Nagusia il zaigu oraintxe Erroma'n. Aita Santuak ikusi du bere oean eta mundu guzian arrada aundia egingo du jaun onen eriotzak. (G. B.).

Euskaldunentzat oroitza ederra utzi du. Beronek erabaki bai-zuan Euskalerriko Jesulagunak probintzi batean biltzea. Beste erlijiosoak, moja ta praille, erakusbide ederra izan dute, jarrai dezaten. Onela beteko dira gure artean Elizak jarrita dauden legeak, erri bakoitzean bertako seme-alabak izan ditezen animako arazoak bere gain ar ditzatenak.

## IRUÑE'N LAN-IKASTETXE BERRIA

Norbait izan diteke oraindik ere, Iruñe Pamplona dala eztakiana. Bada-ezpada ere, berriro argitasun au jarri bearra izango degu. Iruñe'n Txantrea aldean Lan-Ikastetxe berria sortzekotan omen-dira.

Ikastetxe au Opus Dei'k bere gain artu du ta lurrak artuak dituzte etxea ta inguruak antolatzeko. Urrillean artarako dagoen etxean asiko dira, gero geitzekotan, aurrenengo ikasaldiak.

Lantegi-nagusi talde batek sortu du asmo au ta Opus Dei'koei eskeiñi zizkieten ortarako lekuak.

## EUSKERAREN ALDE ZER EGINGO ZENDUKE BOST MILLOI BAZENITU?

**Lizardi zanaren azken-urte aietan, norbaitek egin zuan galdera au. Bost milloiren ordez, bi milloi jartzen zituan orduan. Urte aietan diruak geiago balio zuan alde batetik; eta bestetik, aldi aretan etzan gure artean gaur aiña diru. Orregatik jarri degu bost milloiren ori.**

**Joan astetan ari izan genak aitatzen. Egin zagunra, gure industri ta dirudukontu norbaiti biotzera jo torkigula, bost milloi prexdiola gure deiak eta or dako-prexko ta bixi-bixi euskera alde eskeinka. Nola ta zertan erabilliko zenduke dirutza ori?**

**Galdera oni edozeiñek erantzun dezaioke. Ia, ba, zenbat erantzun artzen degun. Erantzunak motz eta zorrotz nai ditugu; ZERUKO ARGIAK orri gutxi baiditu. Bakoitzak bere esku du amets egitea; bideak asmatzea; nai duan bidetik jotzea.**

**Zai-zai gelditzen gera. Norbait etxeko ate-joka sortzen ba-zaizu, eta dirudunen bat ba-dezu aurrean, esaiozu gure izenean diru orrekin zer egingo zendukean. Bota degu soka. Ia nork eltzen dion.**

## Txistu - doiñuen leiaketan Rafael Castro nagusi

**Bilbo'n oraintxe egin dute Txistu-Musika Txapelketa bat. Lenengoa zan onelako txapelketetan. Maikoak aztartu dituzte agertu diran lanak eta lenbiziko saria Rafael Castro'ren "Kanta eta Dantza" izenekoari eman diote.**

**Bigarren sario Rodrogo A. de Santiago'ren "Erandio Goikoa"ri eman diote. Au Barakaldo'ko semea ta Coruña'ko Eres-Batzaren zuzendari da. Irugarrena, Tomas Salaberria'ren "Gure arria"'k jaso du ta laugarrena, Migel Gonzalez Bastida'ren "Triptico"k. Au, Bergara'ko Abesbatzaren zuzendari degu.**

**Beste sari bat jarri zuten, balio aundikoa zala-ta, Gon-Guzien egunean entzun-arazález Bastida Joxe Mari'ren "Iduriak" entzako. Santuziko dituzte saritutako lanak Bilbo ta Iruñe'ko Txistulari Taldeak. Iruñe'ko txistularien artean izango dira Garaitarrak, txistulari yayo sonatuak. Gero "Txistulari" aldizkarian argitara emango dira lanok, eta Cinsa'k bere asmotan izan bear du gerora diskoren bat ateratzea ere.**



# ASMO EDER BAT

GURE artean lendik ditugu Jolas-Elkarteak; baiña orain arte Etxe oiek etzuten bear aiñako bizirik. Izen aundia dute gizonentzako bakarrik dauzkagun jan-edan leku oiek. Ta seme-alabak eta emazteak?... Egon ditezela nai duten lekuan?... Ezta itxura ederreko kontua orixe. Ta onela askotan gure gazteei nora joan bear ez duten esanaz bukatzen degu gure egitekoa. Ez algenduke obe gazteak nora joan bear duten erakustea, ta ortarako famili guziarentzat leku egokiak sortzea?

Ortara jo dute bi Jolas-Elkarte edo Club dalako oietakoak. Bata Bilbo'n sortua ta bestea Iruñe'n, (Panplona'n) deguna. Club bi auek biren arteko anaitasuna sortu dute. Onela, naparrak Bilbo'n biltoki jator bat izango dute, ba bilbotarrak ere bai Iruñe'n.

Club auek ez dira gizonentzako bakarrik sortuak. Jolas-Elkarte auetan, gizonekin batera beren lekua izango dute gazte ta emazteak ere. Onela, elkarte auek famili arteko artu-emanak zabaltzeko oso egoki etorriko dira. Esan diteke, Jolas-Elkarte auek, an sartzen diran lagunentzako beste etxe aundi bat bezela gertatuko dira.

Geitxo eten dira gaurko gazteak beren gurasoengandik eta gure aurretikoengandik artu ditugun oiturak zabartzen ari zaizkigu. Lengo giroa gure ondorengoei utzi nai ba-diegu, beste bide batetik jo bearko degu. Senar-emazteak eta seme-alabak, bakoitzat bere giroa ta lekua izan dezakete Jolas-Biltoki oietan, baiña denak giro ta aterpe berdiñean. Alkarren urrean, gurasoen alboan eta etxe-giroa galdu gabe.

Gure egunotan onelako Biltokien premi aundiagoa dago. Izan ere, Ikastetxe berriak sortzen ari dira egunero. Gazteak ikastera erri aundietara jo bearra dute. Gurasoentzat askoz ederrago litzake beren seme-alabak onelako leku batean bilduko ba-lira, jolasaldietan. Ardandegietako txikiteoa baiño asiera obea litzake onelako Elkarte-Etxetan gure gazteak alkarren artu-emana estutzea.

Elkarte auek etxearen luzapen bat bezela izan ditezela guziontzat. Orra asmo bikaiña.

# ERRIETAKO EUSKAL-JAIAK...

Izen-burua, jarri det. Bildur naiz ordea, aitatu nai nuken guztia, zeaztasun guztiz, eta nere gogo motelak nai luken eran argitaratuko ote dedan. Asmo ona eta moteltasuna, biak burrukan ditut oraingoz. Baña, goazen ala ere!

ERRIETAKO EUSKAL-JAIAK! Juan diran bi urteetan, makiñatxobat ikusi ditut. Gipuzku-Bizkaietan, batik-bat. Eta, jai bakoitza, gero alik ongien ausnartu aal izateko, guztia artu eta gordetzen duen tresna bizkarretik zintzilik ibilli naiz. Askok esan didate, eta neu ere ortan nago: aspaldian, euskal-jai ederrik ospatu da bazterretan! Gure garaian (ogeita sei urtez onuzkoak bai gera) onelako gogorik, ez gendun ezagutu. Uri-buruetatik asi, eta basa-mortuan den erririk txkienera, nolako euskal-jaiak egiten diralako! Urtean bein edo... sarritan, bi edo iru aldiz. Gai bat edo bestea tarteko artuta. ERRIETAKO EUSKAL-JAIAK, goein mallan dabiltzala dirudi. Baña, begira: «dirudi» bakarrik esan det. Zergatik diodan? Adierazi nai nuke.

Gipuzku-Bizkai etan ospatu diran euskal-jai geienetan, edo... askotan izandu naizela nion. Asko ikusi ditut, eta ASKO GUSTATU ZAIZKIT! Baña... Ez naute bete. Antolatzalleek, ba-dakit asmo zuzenez lo asko galduaz dabiltzala. Eta, ez nuke oien gogorik mindu nai. Baña, nere iritzia emateko eskubiderik baldin ba det, eta antolatzale guztien lana txalotuz batera, EZ NAUTELA BETE! esango det.

Jo Gipuzku eta jo Bizkai. Eta, alderdi guztietan, gauz berdiña ikusi bear: dantza-talde bikañak, bertsolariak, soka-tira, arri-jasotzea, aizkora, dantza-sariketa, eta... ez dakit beste zer. Baña, ortik, erri gutxi pasa dira. Euskal-jai bat antolatzen dabiltzanak, edo... garbiago esan da, aiek prakak bete lanekin dabiltzanean, aiei begira dagonak, ez du besterik ezer egin nai izan. Ez da laguntzera sartu, eta ez die-«alako edo onelako ere jarri bear zenuteke»-esan Jainkoak ongi daki, ez nijoala dantza-sariketa, aizkora, soka-tira, arri-jasotze, dantzari-talde eta onelakoen aurka. Begira nagon bakoitzean, malkoei, ezin izaten diet eutsi. Baña, ERRIETAKO EUSKAL-JAIETAN, ez al diteke ortaz gañera, beste ezer antolatu, moldatu!? Orain dala bi urte, euskaljaia, gai oiekin ornitzen eta dotoretzen zan... Urte bete juan eta... gaur ere gai oiek bakarrik ikututzen dira... Erri gutxitan antolatzen dituzte ITZALDI, ANTZERKI eta onelakoak! Gure erriak ba-ditu gizon ospetsuak Eta, iñungo Kondairak ikasten gabiltza, geureak aaztuta. Egia: nun edo nun, erriko semeren bati, il da andik ez dakit zenbat urtera, zerbait egin zaio: arri edo oroitarri bat jarri, jai bat egin... Baña, gizon aren kondaira edo ixtoria eta aren lanen berri, ez degu ezagutzera ematen! Zergatikan ez? Ez nijoa egiten danaren aurka. Egiten ez danaren utsuneak itz eragiten dit.

Erriak folklore utsa naiago du ordea!-orrela erantzungo didate norbaitzuk. Noiz edo noiz, gertatu izan zait, alako illunabarretan itzaldiak dirala, edo... antzerkiak... Eta, entzule edo ikusle gutxi izatea. Iñundik juan, itzaldi edo antzerkiametsean, eta erriak ez erantzutea, penagarri oi da. Baña, orregatikan bakarrik, gure jolas eta «apustuei» begira baldin ba gaude, ez degu askorik aurreratuko. Folklore gaiak, ondo erabiltzen dira gure ERRIETAKO EUSKAL-JAIETAN... Baña, jakintza, kultur-zaillak, aaztuta ditugu. Eta, Euskalerria, ez da jolas eta jokoa bakarrik... Oiek bearrezko eta osasungarri ba dira, oietzaz gañera gure egunetan esnatu dan jakintz-egarriari, erantzun biar zaio.

Nundik asi? Euskalerrian erri asko dira, eta buru asko. Euskal-jaiak antolatzen ari diranak, etzatela beste errietan egiten duten ua, errirako eginkizuntzat artu. Pentsaera asko dira, eta bakoitzak zerbait berria asma dezala.

Bestetik, Euskalerriko-kondaira erakutsiko duten irudi edo «cuadros plásticos» deritzanetako batzuek ere, egin ditezke. Euskalerrian, beste errietan bezain gizon ospatsuak izan ditugu... Baña, aien izena entzutean, Beindelakoan Ondarruako lagun zar batek zesaidana: «Txomin Agirre, zer zan ba: Zineko Artistie?— esaten dute. Noren erruz? Euskal-jaiak egiteko ditugun baimen guztiak ditugu gure «gizonak» ezagutzera eman eta kultur-bideari eltzeko ere.

ERRIETAKO EUSKAL-JAIETAN, beti gauz berdiña! Folklore utsa! Bear bada, lelengotik erriak ez du erantzungo bear bezela, beste gai batzuek sartzean. Baña, zaletasuna, gauzak ezagutuaz sortzen da.

Bestalde, sariketa batzuek elirake txarrak izango. Dantza-sariketak antolatzen diran bezelaxe, idazki-sariketak, jakintza-sariketak, (Euskalerriko gora-berak gai dirala); olerki-sariketak, eta abar ta abar...

Antolatzalleek leen ere naiko lan artzen dutela? Egia. Errian iru-lau izaten dira, lan guztiak bizkarrera artzen dituztenak... Oiei lagundu bear zaie, eta gure errietako euskal-jaiak, pittin bat berritu, indartu, jakintza-bideko gaiez dotoretu... Bestela geldi gaude; eta geldi dagona, atzeraka dijoa.

Antolatzalle eta antolaketan lan egin dezaketen guztiei, erregu bat: ZAITU ETA ERABILLI FOLKLOREA! Baña... BENETAKO SUSTRAI DAN JAKINTZA, BEAR-BEARREZKO DEGUN BIDEARI ELDU! Folklorea bakarrik, lastoa bezela geldituko da. Lastoaren indargarri eta pozagarri, betor jakintz-bideko zertxobait.

ETXE-BA'REN IZENEZ
IRIONDO'TAR JOXE MARI

## LAGUNTZA-BILLA

Gure "ZERUKO ARGIA" ren 83 garren zenbakian gure San Martin Jon'en idaz-lan ederrean, beren zorroztasunez, euskaldunon irakor urritasuna salatzen digu. Benetan garrantzi aundidun auzia. Problema garratza sortuerazten diguna euskaldunori.

Euzkaldunak euskeraz ez irakortiak d i k u r, aitzen ematen du, gaurkoz euskaltzalerik ezdala aurkitzen euskalerrian, aorrek dirudigu urik gabeko erreten legor-legor bat, txit itxusi ostopetsua, besterik ez.

Beraz, bide ortatik aldi luzeak bañon len iltzera, aienatzera dijua gure mintzaro gozo gaizua.

Ondoren ori ametseratzeak bakarrik, beartzen gaitu al' dabenak al'dabenarekin igituerazi, mobitzia ta bizkor, bada egoera lasai luzeak erakarri leiokez kalte aundiak gure izkuntza maiteari. Berau, deiez eta karraximingarriz ixil gabe oiuka degu ta lendabizi neroni asiko naiz emengo euskaldun ezagunekin, zeatz mingarri zaizkan ekar eta agirakaz, beren mosua gorritu ta lotsatzerañokuak esaten.

Bitartean, "ZERUKO ARGIA" aonek bai-ditu idazle argi ta burutsuak bada berok, eskierki, ezpairik gabe asmatuko dituzte ongarri ta gaizkatzeko bideak.

ETARRE

DIZDIRAK

# Letra bat dala-ta eztabaida

CARLOS SANTAMARIA'K

*Etzaitezte bildur, ez daukat «h» izki famatuari buruzko eztabaidan sartzeko asmorik. (Esan dezagun, bidez, euskaltzaleen arteko onelako «aserredurak» kalterik besterik ezin ekarri dezaioketela euskerari. «Apaizen lixkarrak, deabruren jaiak»).*

*Ez noski. Beste letra baten inguruko auzi batekin natorkizute ontan.*

*Frantzi'ko kristau langille artean «c» zirtzilla batengatik zalaparta ikaragarria arrotu da aspalditxo ontan.*

*Jakiña dezuten bezela, Frantzian oso sindikato eder bat badago C.F.T.C. (Confédération fran çaise de Travailleurs chretiens) izena duna. Langille-lagunarte au sortu zanean, 1920'n urtean, sortzailleak oso inki-manka ibilli ziran atzeneko «e» horri buruz.*

*Zer esanaia eman bear zitzaion «c» horri? «Chrétiens» ala «catholiques»? Kristauak ala katolikoak? Orduko koxka hortan zegoen. Sortzailleak «Kristau» izena jarri zioten azkenez sindikatorri eta oraiñarte horrela gelditu da. Beraz, ateak ahal geiena zabaldu ziran garai artan.*

*Orain ere, berriro sindikatuen ateak geiago zabaldu nai izango lituzteke langille askok. Izenetik «c» hori kendu eta «Confederation francaise de travailleur»? soillik utziaz. Batean, sindikatuaren ideolojia aldatuko bear litzake. Egunarte sindikatuak «sozial kristau dotriña» izan du oñarri. Aurrerantzean «personalismoa», alegia, giza-personaren libertadea ta ezkubideak, oñarritzat artuko lituzteke.*

*Bi bideak oso ezberdiñak dira, jakiña. Lenengoak oñarri tinko eta ziurragoak ditu. Bide berritik, berriz, sindikatoak langille guziak, erlijio ezberdintasunik gabe, bereganatzen saiatuko lirake.*

*Eztabaida ontan, bi aldekoak ba dute arrazoi pixka bat. Bi aldetatik abantail ta eragospenak agertzen dira dudarik gabe.*

*«Mutatis mutandis», alegia, «aldatu bear dana, aldatuaz», au da konzilioaren koxkarik handiena ere. Gaurko munduaren aurrean zer egin bear du Elizak? Ateak zabaldu edo ateak atalagatu?*

*Geienek bigarrena pentsatzen dutela dirudi. Begira letratxo zirtzill bat jartzeak edo kentzeak noraño eraman gaitzaken?*

## Garoa'ren itzak

# DOMINGO DE AGIRRE'N EUNURTEBETEAN

*Uda ontan Urbia-zelaian eta Gipuzkoako mendi ederretan sarturik egon naiz, ez baña oinez tontorrak eta ibarreak ibilliz, Garoa'n orriak irakurriz baizik.*

*Orain dala illabete ta erdi inguru, liburu ontako amarrgarren irakurburuan agertzen dan Joannes artzaren amets bikaina, erdera itzuli-ta, Donostiako egunkari batean argitaratu nuen.*

*Egun batzuetan eskutatik utzi-ta, berriz edestizun ederr ontara etorria nazute. Nun obeto gure zelaietan baño oporregunak igarotzea? Domingo de Agirre'n Garoa-irakurgaia nere eskuetan artu egin det berriro, eta lendabiziko orria idikita bereala, lerro miragarriak agertzen zaizkigu.*

*Egileak ez-tu Irakurleari itz egiten asiera ontan, garoa ber-bera da biderakuslea, eta bestetan bezela, egilearen gauzak, landareak, zuaitzak ditugu mintzaleak, itzdunak. Eta auxe da, nere iritziz, noski gure idatzlearen antza erakusgarriena, indartsuena.*

*Ez-ta nere ustez, bere lenengo eunurtebetean geiegi izango gure euskerazko aundienetako liburua azaltzea. Onelako irakurgaiak beti eta Elerti guzietan biderakusle onenak izaten dira, edozein izkuntza garbitu eta aberatstutzeko bideak.*

*Edestizun edo «novela» au gure antziñako erri, baserri batez ere, bizitza ta izkuntzaren izpillua da, eta andik asi bear degu ortarako aleginñetan.*

*Ikus dezagun-ba zein ederki «Irakurleari» sarretan asten zaigun Garoa, apala, maxkarra izan arren, baserri alderako bideak erakusten. Garoa Kresalaren anai gaztea, gure egillearen irudia da. Au apaltasuna!*

*Ona emen irakurleari Garoaren itzak:*

*«Egun on ta berri on, adiskide».*

*«Garoa naiz, Kresalaren anai gaztea; bañan menditarra, Gipuzkoako izkeraz jantzia».*

*«Nere anaiari abegi ona egin zioten euskaldunak. Gaurko egunean edozeri jotzen zaizkio ta, Euskalerrian azi zalako, txalo batzuek jo omen zizkioten».*

*«Bañan ni ez nator txalo billa».*

*«Buruauste gogorren erdian sortua naizela esan dit aitak, zeregin askoren tarrtean, txolarrtietan, attalga ta pittingak arantzapeko lore gaixoa dirudidala, ta eguzki gutxiko landare maxkarra».*

*«Bai, gure aitak dionez, Kresala ta ni almen gabeko gizonaren egintzak gera, zazpikiak; eta gure aitak ondo ezagutzen gaitu».*

*«Ni jaio baño len zerbait izango nintzala uste omen zuan; baña jaio ta gero, zelaira naramala, begira-begira egon zait eta utsune agiriak idorodizkit azalean, urtegabeko eskintasuna errai-mamiñean.*

*— II —*

*«Ala ere, arrera txarrik ez aldidazu egingo. Apalari etzaio iñon gaizki begiratzen».*

*«Ta gañera, nai degunik ez-tegu, irakurle, ta al deguna bearrko. Gaur eztago aukerarik».*

*«Erneko al dira euskeraz irakurgai gozo, ugari ta mardulak. Betoz ordu onean, betoz ainbat laxterren».*

*«Nork daki, ni ain kaxkarra ikustean, liburu eder bat zerorrek asmatuko ez ote dezun?»*

*«Baño bitartean, ona emen ni naizen bezelakoa. Tira, ikusi zazu Joannes artzaia, ideki zaiozu atea, irauli zadazu orria».*

---

*Auxe da, irakurle, Garoaren deia. Landabizi artu eskuetan GAROA eta irakurri zazu asieratik bukaeraño. Baratza ontan pakean bitartean biziko zera, eta gero zure gogoan zerbait baldin-ba dezu esateko, idatzi eta Domingo de Agirre aurtengo eunurtebetean orixe izango da zure omenaldi ederrena.*

ARGOMANIK


FUNCOR S. C. I.

Benetako baserritarrak bear dituzten MAKIÑAK:

BIRRINTZALLE - ERROTA - NAASTALE
ZERRA - URAGA - URASKA

Europa'ko aurrerakizuni'k onenak, emengo nekazarientzat

ADI TA OROI EZAZU

FUNCOR

AZKAR BEZIN ONDO

ELORRIO — Vizcaya 114



ERAMAN-EKARRI'rako AGENCIA

Transportes ALE

EUSKAL ETA ERDAL ERRI GUZTIRAKO

Iparraguirre, 8 - DONOSTIA



ARANZADI'tar J. M.

Era guzietako seguroak

Barzelona'ko «LA CATALANA»

Seguroetako ordezkaria Gipuzkoan

S. Marcial, 33 entlo. Urrutikiña 19226

DONOSTIA


# BILBO'TIK

## TORERO EUSKALDUNAK -ORBEA, KANUTILLO ETA GARCIA ARIÑO-PELIKULA SARIKETA - SASKI NASKI - ASTEKO IZKIRIMIRIA

Euzkaldunak, batetik eguzki gutxiegi eta bestetik gerri lodiegia ei daukagu torerotzarako.

Baña, ala ta be, izan dira gutarrak, txapel andia alde batera itxita, euren melena ederrak erakutsi dabezenak; banaka batzuek, baita be, inglesak eta japonesak egon diran lez.

Onenetik txarrenera, onelaxe izentatuko neukez neure iritxiz: Luis Mazantini eta Eguia- Elgoibar'koa --Zuzendari bikañenetakoa eta iltzalle bikaña.

Kastor Jauregibeitia eta Ibarra (Cocherito de Bilbao) -Beronicketan aukerakoa.

Diego Markiarán (Fortuna de Sestao)-Bere garayan iltzalle onena.

Martin Aguero Ereño-Bilbokoa-Iltzalle ona-Madrill'en Urrezko Belarria irabazi eban.

Serafin Bigiota - (Torquito de Bilbao) Oso artistea-Lenengoko jokaldian ikusgarria.

Domingo Uriarte (Rebozanito de Sestao) "Farol" etan nagusia eta beronek sortu eban "Farol doble" edo andia esaten yakon jostakera.

Pedro Basauri (Pedrochu de Eibar). Torero osoa-Pelikuletan ondore onekoa.

Rafael Etxeberria (Chacarte)-itxura batekoa eta gaur be iltzalle lez lenengoetakoa.

Rekondo-Donostia'koa Donostia'n bein baten zezenketaren buruz, euzkeraz itzaldi bat emondakoa.

Enrique Oribe —Barakaldaokoa—. Sasaoi edo arorik onenean, emaztearen esaetara toreatzari itxi eutson.

José Muñagorri Bilbao. Banderillero ona.

Zakarias Lekunberri. Busturikoa. Zekorkari talde onenetan ibillitakoa.

Antolin Arenaza, Echandia, Sagasti eta abar...

Euzkal abizendunak asko izan dira. Ospatsuenak: Arruza, Leiceaga, Ochoa...

---

Orbea pelotaria, Gernika'n dala ta eztala, inguru danean, sekulako autsa atara da. Lenengoko partidua galdu egin eban, baña, bere aldez, ondo ikusia izan zan.

Orbea, Alex, Egurbide, Txino, Ondarru dirala ta ez dirala, lengo egun batean Durangoar eta Gernikar batzuen artean eztabaida izugarria ebillen.

Batetik, Txino eta Frias'en alde.

Bestetik, Orbea, Churruka, Alex, orreik dirala pelota jokua jaso dabezenak.

Baña, atzenean, zornotzar bat eldu zan eta esan eban:

—Emen peloteari saltza edo natilla geyen ipinten deutsona, Dn. Kanuto'n (G. B.) semea da... Dn. Kanutillo.

—Baña, zein da ori?

—Oñarte ez dozue jakin, ala- Aitona, gizona, Aitona!

---

III onen zazpian, Begoña'ko Eleizan Jesús García Ariño ezkondu da María Pilar Camacho anderenoagaz. ¡Zorionak! Nerbioentzako, oraingoan sendakintza aukerakoa billatu dozu. Ikusiko dozue.

Bertako eguneko Korreo Español'ean Aitonak onela diño:

—"Pelotari dan Elicegui II'garrenak, bere ezteguetara deitu deust... Jaime Lazkano Jauna be, García Ariño'ren ezteguetara deituta, Bilbora datorren ezkero, beragaz alkarizketaren bat izango dotelakoan nago...".

Bein baten, beyak berba egin eta MUUU...! esan eban. Esan gurea zan.

Bilbon, VI'garren Agerkai Pelikula Sariketa'ri amaiera emon yako. Pelikula oien artean, "Pelotaria" agererazi da eta oso txalotua izan zan. Bere egilleak Nestor Basterretxea eta Fernando Larrukert izan dira eta "Zidarrezko Domiña" irabazi dabe.

Euzkaldunak, oindiño, pelikula arloetan ez dogu geure bururik erakutsi, eta zorionak! biderakusle oiei.

Juan Zuri, Bizkai'ko lenengo Jauna'ren buruz, ze gai ederra daukogun zinerago! esaten eban, ointxo baten Bitor Olaeta'k.

---

Txistu soñugintzako Sariketan, Rafael Kastro'k, 45'en artean eroan dau lenengoko saria, "Kanta eta Dantza" izeneko egikuntzagaz. Len Abesti Sariketan bigarren geratu zan "NORA" abestiagaz. Zorionak!

---

"Pedrito Andia'ren Bizitza" zinean ataratze buruz, Gernika inguruan asi dira argi-irartzen. Atal baterako euria bear ebela eta euririk ez, Gernika'ko bonberoak gusto au egin eutsen. Andia da ba!

## Euskal erriko langillei buruz

**Gutxi-gutxietan lerro auetara ekarri izan oi ditugu, euskal-langilleen gora-berak. Bujanda tar Iñoskentzi jaunak, azkeneko donostiar C.A.T.'ek eratutako Ipui-Txapelketa, bere "Nere argin laguna"'rekin irabazi zuenean, ala zion:**

**"Gure baserria, gure jatorria, baserriko izatea bai, oso goraipatuak ditugu idaz lanetan... Bañan langillea, euskal-langilleak ba aldakigu nolatan euskera erabiltzeari ain errex utzi diogun? Eta galdetu bearrean gera; nolatan langillea euskeraganatu?"...**

**Auxe jakin nai genuke. Ordua da Z. ARGIA'k txoko bat eratutzea gai auetzaz. Gaurko egunean langilletasuna baño aukerazko egite bat ez degula arkituko izkuntza gureganatzeko. Eta euskera errietan erabilli nai baldin badegu, langilleak itzegin bear duela lenengo deritzait.**

**Or ditugu bada ainbeste anai baserrietatik fabriketara etorriak, jatorrizko euskera bakarrik zekitenak eta gaur, bildurti, —neskatill erru-dun bat bezela—, jakinarazten digutela galduko duten arrixkuan gertatzen diradela?**

**Batzun batzuek sendo iraunarazten diote, eibartarrak buru dirala. Eta eskubide au dutelarik eskatzen digutenak, mesedez, idazteko. Bañan lan auek mamitsuak izan ditezela.**

**Langilleak bertsoetara jarriko diran garaia etorriko zaigu. Bertsolari eta olerkitasuna baserritarren berezki ez baita. Eta ortxe ikusiko genituzke pabrikakoak eta baserritarrak, naiz danok bat izanik, "lirismoa" eta ideia ederr'eko esanak batetik eta gaurko realidade baten sustraia, latza, gogorra, bestetik...**

**Eta neretzat, naio det askoz geiago, esaera sakon, garratza, gaz pixkat bere minkortasunian daramala naiz puntuetan gaizki erabilia izan.**

**TOLARETXI X**


PASAJES
Zumalacarregui, 2 y 4
Teléfono 51450

VITORIA
Plaza de la Provincia, 11
Teléfono 6772

BILBAO
P. del Conde Aresti. 1
Teléfono 213429

MUEBLES ruiztegi
merkeak eta lujozkoak



IZOZGILLEAK (Frigorifikak) - SUKALDEAK - GARBIKIÑAK - TERMOAK

Etxeko Erregiñari etxe-tresna guzien Erregiña - Aukera zazu zerorrek zure gogokoa

EDESA

EIBAR
GENERALISIMO, 6
EGUIA, SUMINISTROS ELECTRICOS

SAN SEBASTIAN
URBIETA, 36
ARLEGUI, ARRIETA & SARALEGUI, S.R.C.

# Congo pakearen billa

## Lehen ministroaren ibillaldiak

AERONAUTIKAN
LAGUNTZARAKO TRATUA

Azkenean Egyjto'ko lurrera iritxi zanean irriparren tartean Tsombe jaunak, Congo'ko legezko lehen ministroak, beste gauzen artean Egypto'ra Nassed lendakariarekin abioi arazoetan tratu egitera zetorrela esan zuan. Onela, zirikada baten antzean, Egypto'n jatxi ahal izateko eduki zituan eragozpenak adierazi nai izan zituan. Congo'tik Egypto'ra zuzenean zatorrelarik ez baizioten utzi lur artzen. Orregatik Athenas'era poan bear izandu zuan eta andik berrio, azkenean, lortu zuan Egypto'n lur artzea, baiñan iru egun preso bezela pasatzeko jauregi batean. Zer dala ta jolasketak dirudíten joan etorri guzti auek?

Egypto'ko uriburuan daude bilduta munduan diran bi elkartasun nagusienekin (okzilentalak eta komunistak) lotuta ez daudenak, au da, neutralistak. Congo askatasuna iritxi bezin laister eta Lumumba lehen ministroa zalarik neutralisat edo konprometitu gabeko estaduen elkartasunaren sortzaille bat zalako ba zuan Billera ortara joateko eskubidea, berez beiñepeiñ. Baiñan... Cairo'n bilduta dauden estadu-gizon geienetzat Tsombe, oraingo lehen ministroa amerikanoen eta kapitalisten jostaillu bat besterik ez da ta itxuragabeko gauza litzakela euren artean exertzeko eskubidea ematea ta ez diote baimenik eman nai izandu beren artea etortzeko. Zer gertatu da ta zer gertatzen da Congo'n?

U. N. O. TA KATANGA

1960'gn garagarrilaren 30'an eman bear izan zion Belgika'k askatasuna lengo bere kolonia zan Congo'ri. Ordu ezkeroz an gertatu ziranak naiko ezagunak dira bein da berriro esaten jarduteko. Batzuek diote azkarregi eman ziotela askatasuna Congo'ri, congotarrak etzutela askatasuna merezi etziralako gai askatasunarekin beren estadua bear bezela erabiltzeko. Beste batzuek galdetzen dute berriz ea zertan egon ziran pentsatzen belgak ainbeste urtetan Congo bere eskuetan eduki zutelarik gizonak askatasunerako bear bezela, izan ere parregarria da benetan pentsatzea Congo'k askatasuna bereganatu zuanean congotar bakarra zan unibersitario karrera bat bukatutakoa.

Askatasunatik berealaxe Tsombe'k Katanga'n Congo'ren sei probintzietatik bat, aberatsena askatasuna artu ta bere gobernua formatu zuen kapitalisten laguntzarekin. Gero etorri ziran Lummumba'ren eriotza ta U. N. O.'ren gudariak. Auek azkenean Tsombe Katanga'tik bialtzea lortu zuten, baita ere Congo'ren batasuna baiñan ez luzaroako.

Aurten U. N. O.'ko gudariak aldegin bezin laister etorri zan berrio Congo'ra Tsombe ta Congo'ko lendakariak agindu bezela gobernu bat osatu zuan. Baiñan bitartean naiko nahaspiall sortuta zegozen. Gobernuak ezin baidu estadu guztia gobernatu, bere kontra armetan altxata asko arkitzen baidira ta oietako batek gaiñera Congo'ko irugarren urian, Stanleyville'n beste gobernu bat osatu du. Armez galtzen dijoa polliki polliki amerikanoak Tsombe'ri gogor laguntzen diotelako baiñan diplomaziari ta politikari dagokionez ez dijoa ain gaizki.

PROBINTZI TA
PROBINTZITXOAK

Congo'n probintziak eta gaiñera probintzitxoak ba dira. Sei probintzi aundi dira. Probintzi bakoitzak bere gobernua ba du, baiñan probintzi bakoitza beste probintzi batzuetan banatua dago ta probintzitxo bakoitzak bere gobernua ta bere ministroak ba dauzka. Baiñan au, probintxitxo bakoitzak bere gober-
bintzi edo probintxitzoak besterik.
nua ta ministroak izatea askotan parregarri izatera irixten da. Adibide batzuek: ministro guzti oiek bakoitzak «agregado de prensa» delaguztiak, naiz eta urrutiko lengukazioren batean sartzen ditu. Ta lekurik ez baldin badute arkitzen sortu egiten dituzte. Onela millaka ta millaka dira ezer eigten ez dutenak baiñan estaduarengandik jornal bat jasotzen dutenak. Gaiñera ba dakite orain dauzkaten puesto oiek egun batetik bestera galtzeko arriskuan daudela ta orregatik alik eta protxu geiena ateratzen saiatzen dira. Ez da arritzekoa ortaz Congo'ko gobernuari dirurik geienak alperrikako serbitzari oiei ordaintzen joatea.

ERREBOLUZIORAKO
BIDEA PREST DAGO

Lenago esan bezela bizi diranak gutxi dira beste guztien onduan jartzen baldin baditugu. Congo'k amairu milloi bizilagun baiño geiago dauzka. Ta milloi oiek gero ta geroago gaizkigo bizi dira. Ez litzake batere arritzekoa izango oiek egunen batean justizia beren eskuetan artzea.

Bai ba dira unibersitarioak, lantegietan nagusi izatera irixten diranak, baiñan oiek politikan dagoan nahaspilla ikusirik al duten ondoen bizitzen saiatzen dira irabazten dutenarekin, gero ta geroago Congo'n pasatzen danarentzat ajola gutxiago izanaz.

Baiñan oien alboan lantegietan eta minetan lanean ari diran langilleak artzen dira eun millaka. Oientzat bizimodua egunetik egunera galestitzen dijoa. Ezin gustora egon oraingo gobernuarekin. Bestetik berriz «basenji» deituak arkitzen dira. Nekazari bezelakoak dira baiñan goseak ez iltzeko aiña bakarrik biltzen dutenak. Oiek askotaz ere geiago dira ta okerrago bizi dira. Oietatik sortzen dira rebeldian arkitzen diran erreboluzio-zale gudari geienak.

Baita ere erreboluzio-zale diran gudari oien artean gazte asko arkitzen dira. Urietara etorritako nekazari gazteak, ofiziorik gabeak, bizibiderik gabekoak, bere gosea nun il ez dakitenak.

ERREBOLUZIOARI PROTXU
ATERATZEN DIOTENAK

Baiñan ez da uste bear erreboluzioa egiten ari diran guztiak garbi jokatzen ari diranik. Asko baidira oien artean erreboluzioa komerzio ta negozio bat bezela artzen dutenak. Naiko zoritxarra erreboluzioa benetan egiten ari diranentzat. Oiek ez baidute batere lotsarik jendea goseak iltzen uzteko berak ondo bizi izan ezkero. Ta au ez da inbentatutako gauz bat, gertatutakoa baizik.

PAKEA NUN?

Egia esateko ez erreza galdera oni erantzuten. Bakar bakarrik oraingoz esan ditekena da ezin ditkiela oraindik ikusi. Bear bada militarrak ekarritako pakeren bat izango da, baiñan pake benetakoa, injustiziak, ezbearrak zuzenduko dituana ez da ikusten. Seguru asko ortarako erreboluzio bat bearko da ta ez da ahaztu bear erreboluzio bat ez dala marxista bear bearrez.



Gizenga, Lummumba zanaren laguna, errebolucio-zalea Tshombe'ren eskuetan dagona.



Tshombe, lehen ministroa bere gudarien aurrean.

ko bat ba dauka naiz ta probintzitxo geienetan eguneroko bat ere ez izan. Ba da beste probintzitxo bat illabetetan teknika irakaskintzarako zuzentzaille nagusi bat izan duan, teknika eskola bat ere izan gabe probintzi guztian eta jakiña zuzentzaille orrek ba zituan zuzetzaille ordezko, sekretarioa ta gaiñentzekoak. Ez da arritzekoa. Gobernu txiki oiek Leopoldville'ko gobernuak bezela egin nai izandu ditu gauzak eta, baiñan diferentzi aundi bat dago bien artean bata, Leopoldville estadu guztiaren uriburua da ta besteak ez dira pro-

PARASITOAK

Bear bada gaurko Congo'ren gaitzik aundiena ori izan diteke: parasitismoa. Bakoitza zerbait agintzera irixten danean bere familiko suak izan, danak estaduaren kolo-

---

### NAZIO-ARTEKO UNEA

# Ondo bizitzea ta politika

**Frantzia'n denbora luzean ta sakon enkuesta egiten jardun dira alik eta ondoen ea frantzesentzat zeintzuek diran Frantzia'ren prolemarik nagusienak jakiteko. Politikaren gaiñean zerbait jakin nai duanak ezin lezazke enkuesta orrek erakusten dituanak ahaztuta utzi.**

**Lenengo erakusketa, politikako gaiak ez dute batere garrantzirik frantzesentzat, auentzat Frantzia'ren prolemarik aundienak ekonomia ta gizartea dira. Geienentzat lenengo prolemarik aundiena bizimoduaren neurria da, gero erretiroak, irugarrengoz etxebizitza, laugarrengoz seguruak, bestgarrengoz irakaskintza, seigarrengoz nekazaritzaren goraberak, ta azkenik 5% bakarrik atomika bonbaren istilluak.**

**Bear bada lenengo pentsakizuna au izan diteke: joan da pikota demokrazia ta politika, jendeak ondo bizitzea besterik ez du pentsatzen. Baiñan... ez litzake pentsakizun zuzena izango. Zergatik?**

**Ekonomiaren prolema oiek, bizimoduaren neurria, erretikoak, etxebizitzak etab ez al dira politikoak ta sindikalistak zuzendu ta erabaki bear dituzten gauzak? Beraz ezin dezakegu esan batean jendeak orrela pentsatzen dualako politikak ez duala zer egiñik.**

**Ala ere egia da badirala Frantzia'n bertan garrantzi aundiko gaiak, enkuesta onek dionez frantzesen proleman artean azaltzen ez diranak. Informazioa esate baterako. Soziologo batek esana da, XX'garren gizaldian libre izatea informatua egotea dala. Ori egia baldin bada berriz, naiko arrisku badute frantzesak emendik laisterra libre ez izateko. Artu dezagun gaur eguneko informaziorako indar aundiena duan tresna: telebishta. Gobernuaren eskuetan dago, ta jakiña gobernuak bere protxurako ez baldin bada ez du beste ezertarako erabilliko telebishta politika gaietan. Naiko burruka ba darabilkite ango politikoak gai onetaz. Eta orain esan dugun adibide au bezela beste asko jarri ditzazkegu politikari bakarrik dagozkienak ta askatasunarentzat garrantzi aundiegikoak diranak ta jendearen iritziarentzat batere balio ez dutenak.**

**Ori dala ta ba dira partiduekiko demokraziaren kontra itzegiteko arrazoi bat geiago billatzen dutenak. Alegia jendeari ondo bizitzen utzi bear zaiola ta beste gaiñentzekoak jende gutxi batzuen artean utzi bear dala. Baiñan onelako arrazoiak erabiltzen dituztenak gauz batetzaz ahazten dira: orrelako demokrazietan izaten dirala beti minori batzuek jendearen alperra salbatzen dutenak ta gaiñera jende despreokupatu orretatik edozeiñek duala eskubidea politikan parte artzeko nai duten eran.**

**RIKARDO ARREGI**

---

# Munduan esaten dana

**The New York Times.**
INTERNATIONAL EDITION

China'ko erreboluzioaren amabosgarren urtebetetzean

*"Lenago edo beranduago Mao ta bere lagunak, dabaneko edadetuak, beste belaun bati pasa beardo dizete eskua. Ba du munduak eskubidea espero izateko gaztedi berri orrek konpreni izatea China'ren ontasunerako izango dala kooperazioko bidea artzea eta pake bideko politika bat jarraitzea, arriskuaz betea dagon politika bat jarraitu bearrean, Viet-nam'en asten dan politika gatik Congo'ko politikaraiño: Mao Tsetoung'ek aukeratu duan bidea".*

**Le Monde**

Bolivia'ko arazoak

*Mineroen bitartez agintaritzatara jasoa izanik Paz Estensoro lendakariak bere burua iru aldiz aukeratua izatea lendakaritzarako lortu du. Onela Bolivia'ri amabi urte estabilidadekoak eman dizkio, gertakizun garrantziduna, Bolivia'k eun eta berrogei urtetan eun eta amasei erreboluzio izan ditula gogoratzen baldin badugu. Baiñan asieran, bere lenengo agintaritzan ezkerrerako sinpati aundiak azaldu ba zituan, onela langilleen laguntza bereganatuaz, Amerika guztiko langille erreboluzionario aundienen laguntza bereganatuaz, geroago erriak onartu ezin zezakien neurri ta erabakiak artu bear izan zituan, batez ere agintaritzara jaso zuten asarrea bereganatuaz. Lendakaritzarako azkeneko elekzioetan On Juan Lechin'ek, ordurarte lendakari ordezkoa zanak Paz Estensoro'rekin autsi zuan, erreboluzioaren ideialak ahaztu zituala esaten baizion.*

**THE TIMES**

Txina egun batetik bestera ez da aldatuko

*Munduak ez du itxogiten egon bear Txinoak bere ibilkerak aldatzeko. Kanpoko leguntasunak ez dituzte egun batetik bestera Txinoen ibilkerak aldatuko. Izan ere berritzen edo berpizten ari dan zibilizazio bat da. Zibilizazio onek bere xedeetarako ote darabilki bear ez duanean alde batera uzteko? Edo ta estadu au, berez unibersala izanik mundu guztirako zabaldua dagon siñismen batekin bizitzeko prest dago? Gutxienean beste amabost urte bearrezkoak izango dira galdera onen erantzuna jakiten asteko.*

Oyal s. a.

OYAL ETA EFORRU ALMAZENA

PAREGABEKO TA BIKAIÑENAK

Telefonua 14304

Garibay, 4 - DONOSTIA

# NEKAZARIEN ALDEKO LAGUNTZA - ETXEAK

Gernika'ko errian jartzera dijoaz basarritarrei laguntzeko etxe berri bat. LAN-Etxe auei «Agencia de Extensión Agraria» izena ematen diete. Bizkai guzian jarri nai dira onelako «Lanetxeak». Markina'n sortutakoa izan zan aurrena, apaiz batzuek eskatuta.

Gure basarrien kontua oso kontu artzekoa dala esanaz ari gera aspaldi ontan, eta ortarako sortzen diran laguntza guziak artzen alegiñak egin bearrean gera. Ezkera alperrik euskaldun guziok, basarri oietatik sortuak. Gure gurasoak edo aien aurretikoak, basarrietan jaioak ziran, eta seme-alaba guziak basarrian bizimodurik ezin iritxi dezaketelako, seme zarrena etxerako ta besteak kalerako edo beste etxe baterako izan oi-ziran. Onela, guziok basarrietan degu gure jatorria.

Baiña azken urte auetan, basarrietako biziera, oso zailla egin da, ta lengo moldetan jarraitzen ba-dute, nekazari guziak kalera jetxi bearrean izango dira, bizimodua billatzera. Baiña au kalte aundia izango litzake bai basarritarrentzat eta bai kaletarrontzat. Orregatik alde guzietan, Gobernuak nekazarien aldeko legeak eta laguntzak sortzen asiak dira, lurreko langilleak urritu ez ditezen gizartearen kaltean.

Gure artean sortu dan laguntza oietako bat, lengoan aitatu genduan: Basarriaren Lagunak izeneko elkartea. Beste laguntza «Agencia de Extensión Agraria» izenez Gobernuak jarri dituan «Laguntzaetxeak» dira. Illa onen 19'garrenean Gernika'n irikiko dute onelako etxe bat. Bizkai'ko Aurrezki Kutxa dabil tartean arazo onetan. Emendik sortu ziran alegiñak Bizkaian etxe oiek ugaltzeko.

Aurrezki Kutxa orrek berak mutil-talde bat bialdu zuan Heras'ko Basarri-Ikastetxera, an ikas zitzaten oraingo nekazari bide berriak lanerako. Auek izan ditezke gero, euskaldunon artean beste nekazarien maixu egokiak. Aurrezki Kutxak berak lagundu du ontan, Nekazaritzako Ministerioari lekua eskeiñiaz. Orrez gaiñera, Aurrezki Kutxak antolatu ditu lan-tokiak.

Dirudienez, ontan dabiltzanak au diote: gure basarriak beren lurrak, lautik iru zelai ta belarditarako erabiltzen dituzte. Beraz, basarriaren etorkizuna ganadutegiak jarriaz obetuko da. Baiña gaur ditugun ikulluak eztira egokiak. Lan asko ta irabazi gutxi ekartzen baidiote basarritarrari.

Orregatik, lurreko ikasbideetan aituak diran guziak ontara datoz: ikulluak basarri bakoitzak bere aldetik banaka euki bearrean, basarri guziak taldeka batuta guzientzat leku batean jaso bear lituzketela beren ikulluak. Onela baillera bakoitzekoak alkartuko balira, denentzako ikullu aundiagoa egin da an gobernatuko lituzkete baillerako ganadu guziak.

Alde ortatik jo dute, beraz, basarriari lagundu nai diotenak. Eta diotenez, alkartuta egindako lan onek bakarrik ekarri dezake basarrietara bizitzeko bear duten irabazia. Basarri-alkartasunak beren ganadu-jatekoa danentzat batera erosi; bear diran makiñak denen artean inguratu; diru-eskeak denen izenean egin eta onela kaleko pabriketan egin oi-dan bezela, taldeka jokatu bearra omen-dute basarriak bizi nai ba-dute.

Belarra, esnea ta aragia sortuaz, iritxiko omen-degu gure basarriaren iraupena bere mailla batean. Poliki-poliki, basarritarren irabazia, kaleko langilleen pare e giteraiño jaso bear degu. Erne egon gaitezen, beraz, lurreko langilleen alde sortzen diran bide berriak gereganatuaz.

Nork KUKURRUKU¡¡¡¿¿¿
Ollarrak
ollotegian?
...Ez. FAGOR'ek
sukaldian
FAGOR

AUTOSERVICIO
Bilbao S. A.
Estación «ETXEBARRI»
Ondo joan eta
Ondo etorri
ETXEBARRI (Vizcaya)

# NERE BORDATXOTIK

## KANPOTARRAK GUREAN

Urteen buruan atzerritar askok zapaldu du gure lurra. Oien artean jakintsu askotxo izan da; letretako gizon argiak, alegia. Bowles, Humboldt, Victor Hugo, Teófilo Bautier, eta... zenbat geiago!

Gu bixitatzera ta gure lurra ezagutzera etorritako danak eztira berdin jokatu. Batzuk beren kolkorako gorde dituzte artutako iritziad. Beste batzuk idatzi ta ezaguterazi egin dituzte mundu zear.

Kalterik asko egin digutenak ba-dira ori dala-ta. Oso gogorki ta erruki gabe tratatu gaituztenak; basatirik traketsenen pare jarri gaituztenak. Oietatik bat Aymeric Picaud izan zan, irakurletako ondotxok jakingo dezuten bezela.

Burura etorri zitzaizkionak eta bost esan zituen euskaldunen aurka.

Beste ainbat berriz gure izkuntzaren kaltetan.

Muga pasatzerakoan, utsean aterako zala uste-ta, zerbait kobratu egin zioten nunbait gure gizonari. Unetxo artatixe irten zuen bere onetatik. Beste gañontzean gizon jatorrak diruditen asko gizatxartzen dira interes kontuan ikutzen zaiotenetik.

Olako zerbait ez ote zitzaion gerta Aymerik zakarrondori?

Bestela nola idatzi zezaken euskaldunak frantzesen etsairik amorratuenak zirala, ta kapaz zirala txanpon bategatik frantzes bat litzeko?

Etziran akatsik gabeak izango orduko euskaldunak; ezta gaurkoak ere.

Baña, beatza izan eta beso osoa dala kontatze ori ezta bidezkoa.

Odolak irakin zioten mugan: lausotu ta itxutu egin zan.

Nolabait ordaindu nai zuen ustegabean artutako matrallekoa, ta, ortarako, barrenen zeramakien pozoi edo beneno dana kanpora irauli zuen. Aymeric Picaud'en bixita etzan atzo goizean izan. 1140'garren urtean izan baigenduen gure artean.

* * *

## OLANDATARRAK EUSKALERRIAN

Olanda'n, senar-emazte ezkonberri batzuk Euskalerria ezagutzeko zaletasun bizia nabaitu zuten. 1866'garren urtea zan, Amsterdam'dik irten eta oneratzea erabaki zutenean.

Gizona, ezkondu aurretik ere, euskeraren misterioa argitzeko egarritan zegoena zan. Euskerarekin txoratua zegoenak, izkuntza ori itzegiten zan lurraldea ezagutzeko nola izango etzuen ba gogorik?

Emazte Matilde lagun arturik inguratu zitzaigun.

Emengo goraberak idatzirik utzi zituzten. Gure alderdi onak agertu zizkiguten. Gure artean zer etzitzaioten gogozko adierazi ere bai.

Alaxe egin bear du idazle batek.

Danari "bai" "bai" erantzuten zion bati muturrekoa eman omen zion erreziIdarren batek, or "ezetz" erantzun bearrekoak asko itukan, esanez.

Olandatar izkuntzalariaren izena W. J. Van Eyss dezute.

* * *

## DONOSTI'TIK LOIOLA'RA

Donosti'n zaldi kotxe bat artu, ta Loiolaratzea pentsatu zuten Van Eyss eta bere emazte Matide'k.

Kotxeroa ankutsik arkitu bazuten ere, buruz jantzia zala laister konturatu ziran. Gazteleraz edo kastellanoz zerbait galdetuta, kotxeroak frantzesez erantzun baizuen. Senar emazteak etziran gutxi arritu.

Inazio aundiaren sorterrira, Azpeiti'ra zijoazela, beren denboran sekula ezagutu etzuten bezelako denboralea egokitu zitzaien bidean.

Kotxe ta guzi ezkutatu bearrak zirala bein baño sarriagotan pasa zuten buruan. Etziran aserre ostatuko aterpea eskuratu zutenean.

Azpeiti'n denborale bat egiñ asmotan ziran, senarrak euskera barrutian jakintza sendoagoa artu zezan; ikasketan aurrerako sendo bat egin zezan.

Jatorduekin etzeuden gustora ordea. Txipiroiak saltsa beltzean aurrekaldean ain sarri ikusirik, zearo nazkatzeraño iritxi ziran. Etzituzten gogozko jakiak.



Orain millaka frantzes, ingles, aleman, olandes eta beljikatar etortzen zaizkigu. Txipiroiak lenengoz ikusten dituztenean, inpernuko etsaiari baño begiratu txarragoa egiten diete. Ezterizkiote pertsonen janari izan ditezkenik. Urtebetera, berriro udaldia igarotzera datozenean, beurak asten dira aurreko urtean ainbat ikaratu zituenaren eske.

* * *

## AZPEITI'TIK ZARAUTZ'A

Ezta gezurra izango bakoitzak bere santuari erregutzen diola.

Azpeiti'n, jaten ari ziran ostatua, zarautztar bat gertatu zan Van Eyss eta bere emazte Matilde'rekin. Amilibia zuen deitura dalako zarautztarrak. Amilibia onek, beroari aldegiteko ta denboraldi eder bat pasatzeko itxas ertza bezelakorik etzala, esan zien olandatarreri. Bera kosta errikoa zala, ta pauso ori ematen bazuten etzutela damurik izango. Aren esanak ontzat artu zituzten senar emazteak.

Berealako batean Zarautz'en arkitzen ditugu. Garai artan, Zarautz'en, maixu euskaltzale purrukatu bat arkitzen zan: don Gregorio Arrue jauna. Beste euskalkietatik gipuzkoerara ta atzerri izkuntzetatik euskerara lan asko itzulitako gizona.

Aukerako laguna gerta zitzaion Van Eyss jaunari bere egarria al ziteken neurrian ase al izateko.

Arrue jaunak, ostatuz bera zegoen lekura eraman zituen. Damutu zitzaion ala egiña. Senarra etzaten zan oean etzan okerrik izan, baña emaztearenean etsai askotxo izan bear zuen azaldua.

Victor Hugo Pasaian egon zanean, arkakoxoekin kejatu zan jeienbat; baita Bowles "naturalista "Bilbao'n egon zanean ere.

Azpeiti'n zorioneko txipiroiak, eta Zarautz'en xomorroak, gure ezkonberriak etzuten dana zeru koloreko izan. Ostatuz aldatu bearrean gertatu ziran.

Andik aurrera etzan entzun olandatarren kejarik. Jana baratzuririk gabea izan zedilla eskatzen zuten, ori bai.

Gure lurraldea, gure jendea, oitura ta izkuntza, gero ta gogozkoago zituzten.

Senarrak Arrue jaunarekin zituen kontuak; obeto esanda, euskerarekin.

Artan joaten zitzaizkion egunaren orduak. Galdetu ta ikasi zan aren buruzpidea. Emazteak ibillaldiak egiten zituen batera ta bestera. Etzitaizkion gogozko zezenak; ezta pelota ere. Ibili, ikusi, ausnartu.

Ortantxe gozatzen zuen gure emakume olandatarrak.

Zarautz'ko Frantziskotarren konbentuan amaikatxo ordu pasea zan Van Eyss, euskerazko liburuak azterkatzen.

Gure erria ta izakera gogozko izan zitzaizkiela ikusteko, andik urte bira emen genitun berriro. Au da, 1868'garren urtean.

Bigarren biaje ontan askoz ederragoa arkitu zuten Gipuzkoa.

Emaztea arriturik gelditu zan ain denbora gutxian Donosti'k egin zuen aldakuntzarekin. Arrigarri dotoretu zala esaten digu bere lanetan. Etxe aundi zoragarriak eraiki zituztela.

Donosti'tik Zarautz'erako bidea ere ameslaria irudditu zitzaien.

Oria ibaia berriz, benetan zoragarri arkitu zuten; garbi, txukun eta urtsu. Biziro goraltzen dute.

Gaur etorriko balitzaizkigu, oeko zomorrorik eluteke arkituko. Txipiroiak jaten oitu egingo lirake, bear bada. Baratzuri pixka bategatik ere eluteke itzik aterako.

Orduko zaldi kotxe ordez automobill ederrean ibiliko lirake.

Denbora aietan ainbat goraldu zuten Oria ibaia, ordea, gaur eluteke ezagutuko. Orio'tik Agiña'ra bitarte nabaituko luteken kiratsak sudur zuloak estaltzera beartuko lituzke.

Etzuen denborik alperrik galdu senarrak.

Oker ala zuzen (al zuenik erarik onenean) euskal gramatikari buruz lan bat argitaratu zuen. Duvoisin'ek gogor zigorkatu zuen lana izan zan.

Bi urtera berriro onuntz etortzea etzan emazteari jaiotakoa izango.

Euskal barrutian indartu nai zukean senarrak; geiago ikastearen premia ikusten zuen.

Txalogarri deritzaigu gogotik Van Eyss'en euskaltzaletasuna. Gure izkuntzaren misterioa urratzeko ark zuen zaletasuna, alegia.

Bertan jaiotako ta bizi geran ainbati ardurarik txikienik ematen eztigun bitarte, zenbat atzerritar jakintsu buru-belarri euskerara murgilduak! Humboldt, Bonaparte, Van Eyss, eta beste ainbat, euskaldunok aztu ez genitzakenak dira.

BASARRI

# Eusko jolasen txokoa

BERRIRO. Segalariak berriro ote genituan esamesa baztarreetan sortu zan. Berriro Aburuza Oyartzungoa ta Paskualtxo alkar ikusiko ote ziran. Bazirudian berriro ere alkar neurtu gabe ez ote zuten pakerik izango.

Joandako illaren ogei ta zazpian, Iturriotzen Paskualtxok irabazi zuan. Oso aldi txikiakaitik ordea. Ezin zitekean esan nor zan geiago ta nor gutxiago.

Señaleak bota ziran, bigarren ekitaldi ontarako. Erabakia ere artu omen zan Hernanin jokatzeko; oraingo ontan bi belarrarekin. Baña zurrumurruak utsian gelditu dira. Azkenean, ez dituzte itzak tajutu, ta ez omen degu bigarren txanda ikusteko eperik izango.

GARTZIA ARIÑO LENENGOAREN EZKONTZA. Eusko jolasen tartetxo ontatik zorionak Gartzia Ariñotar Josuri. Il onen zazpian ezkondu da ain zuzen ere Bilbaon, bertako emakume Kamatxo ta Soriatar María Pilarrekin. Arrazoi onegatik pelotari asko ta pelotazale ugari bildu ziran egun ortan Bilbaon. Begoñako amaren eliza ederki ornituta zegoan. Beste ainben artean antxe zegoan Ilario Azkarate, pelotarien txapelduna.

GORA UR KIROLAK. Ur-Kirolak oroitzean "txapeldun" itza sortzen zaigu agoan. Ur Kirolak taldeari, Donosti erri buruak egundoko ongi-etorria egin zion. Oraindik orain, Andaluziatik lau trofeo eder irabazita etorri dira. KAT dagoan barrutian folklore sallak beren zai zeuden, aien artean GOIZALDI taldea. Orra zeintzuk diran irabazitako lau trofeoak: binakako gazteena (juveliñes), ta launakoena. Seniorretan batean bigarren lekua talestean lenengoa.

Ur-Kirolak saillaren garaipenak ez dira berriak gure artean. Aspalditik garaipen aundi ta ugari izan baiditu Donostiko sail onek. Gora Ur Kirolak.

IDI DEMA. Bukatu dira San Mikel de Arretxinagan idi apustuak Jokalari asko izan dira bertan bildu diranak. Ain zuzen ere amabi baziran. Dema onen eratzalleak, gauzak ondo takututa utzi zituzten. Ikeriya, demazale famatua ez omen zan bere pare onenanerik joan. Ezin izan zuan. Nai baño aundiagoarekin azaldu zan. Biak 1.300 kilo osatzen zituzten. Orregaitik milla kilotik pasatzen ziran guztiak bezela, gañetik kilo asko artu bearrak izan zituan, beste 450 kilo.

Antzuak egin zuan lenengo, ogei ta amabost plaza ta iru metrokin. Ikeriya bigarren, 29 plaza, zinta bat 5,42 metro.

Irugarren Lekeitioko Plazak, 29 plaza ta 2,10 metrokin.

Barrendak 25 plaza. Onela amabi joan zirenak.

G. ETXEBERRIA

Etxeko-andre: iraun arazi zure arropei onoko jaboi onein:

JABON LAGARTO

Zure garbiketa makinaz egiten ba'dezu
**ATOMIZADO LAGARTO** — jaboia erabilli beti
Eskuz ba'zabiltz, **LAGARTO** — jaboia bear dezu erosi
**JABON LAGARTO**, garbiketarako jaboi bakarra
Etxeko-andrearentzat nerkamerik egokiena,

¡¡JABON LAGARTO!!

## AUÑAMENDI SORTA

## "BOSQUEJO DE HISTORIA DEL BERTSOLARISMO"

**Núm. 37**

Egun auetan liburutegietan salgai jartzekotan da "**BERTSOLARIEN KONDAIRA**", asi Iztueta'gandik eta 1946'garren urte arte.

**Aita Zabala**, jesulagunak egiña da liburua ta erderaz idatzia izan arren, oso jakingarría da euskaldunontzat dakarren gaia. Ona emen liburuan jartzen diran bezela, ze gai aitatzen dituan:

"Iztueta, primer cronista del bertsolarismo. La guerra de la Independencia.—La generación de Pernando Amezketarra. — Txabalategui. Comienzo de "Bertso-papera". —Primera guerra carlista.—Auge del "bertso-paperak".—Casas impresoras de "Bertso-paperak". — Redacción de "bertso-paperak".— El vendedor de "bertso-paperak". —Compradores de "bertso-paperak." —Bertsolaris de la generación de Xenpelar, (1835-1869)-Izuetako artzia.—Bilintx, (1831-1870).—Iparraguirre, (1820-1881).—Los desafíos. Géneros literarios del bertsolarismo.—Las regatas.—El juicio de Gorosabel, (1868).—Composiciones sobre pelota.—La segunda guerra carlista. — Nueva generación de bertsolaris.—Udarregui. Pello Errota. Los Otaño. José Manterola, (1849-1884).—Composiciones politicas.—Bertsolaris emigrantes y bertsolarismo en América.—El juicio de Echegaray.—Desestima del bertsolarismo. — Nuevos bertsolaris. — Txirrita, (1860-1936).—La Cuestión social y los bertsolaris.—Reclutas bertsolaris.—Juan José Macazaga Mendiburu, (1887-1963). — Conclusión.

Erosi nai ba-dezu, eskatu liburutegietan, edo bestela etxe ontara: "Editorial Auñamendi". Apartado 2 - San Sebastián.

# "Andra - Mari"

# eusko dantza taldia

*Orain urte batzuk antolatua dago Galdakano'n "Andra-Mari" izeneko euzko-jantza taldia, ain ezaguna, ospetsua egin da azkeneko aldi auetan da, Euzkalerri'ko erririk-erri dabiltzaz*



*euroen trebetasuna erakutsiten, gure euzko-jantza bikain da trebiak, bardin-gabiak. Ori ikusita, egoki eretxi dausku alkar-izketa bat egitia talde oien buru ta arima dan, beste iñori ezer kennai ba'dozku. Beraz, Sabin'egaz aurkituten alengindu gara orredu gabe, Larrea'tar Sabin'gaz, gure irakurliantzat, zerbait esan tarako ta, esan dautsegunian ZERUKO ARGIA'n idatza nai dodala "Andra - Mari" talde atzaz, laster erantzun leuskun:*

*—Ba'dakizu astekari orren irakurlia naizena, itandu naidozune pozez erantzungodoteta.*

*—Zuben euzko-jantza talde eder ta alai ori, bazkunalez daukazube antolatuta?*

*—Ez gure "Andra-Mari" taldia etxadonekua-da "grupo parroquial" esaten yakona.*

*—Dantza talde orretzaz itz egiten daben toki guztietan, atsegiñez entzuten dogu zure izena, zu zera oien zuzendari edo lendakari?*

*—Ez bat ez bestia enaz, antolatzallea edo txindi zaindaria bakarrik naz. Zuzendaritza Zallo'tar Joseba-Koldobika (Don José Luis) apaiz jauna da, eta dantzaketa gertuta zuzenduten dabesana Etxebarria'tar Joseba-Koldobika bilbaotar azkarra.*

*—Oietara izango-da eta poztutzen naz, ze gizon zintzuak diralako bijak, baña nire eretxiz, zu zera talde ori jaurtu edo gobernatzen dozuna eta ondo egin-be.*

*—Bai orretara-da, diñozku Egiarte txistulari jatorrak, ongi egiten dabez euren egibiarrak esandako agintari bijak, atsegingarriak dira, baña gure talde oien arima Sabin'da.*

*—Ze muetako jantzak jantzatutzen daitubez zuben, da benetako galdakanotar guztion, jantzariak?*

*—Orañarte ezagutzen diran euskal-jantza danak edo geyenak.*

*—Jantza kementzu ta garbi erestutzeko, ze ereskin (instrumento musical) da zenbat ereslari dauko'zubez?*

*—Txistu, alboka, txirola, dultzaña, danbor, pandero ta auspo edo pillarmunika, eta eresiariak sei txistulari pandero jotzalle, dultzañeru, auspo jotzalle ta abar.*

*—Orduban ezpatadantzak eta oien antzeko jantzak baño geyago be jantxatutzen dozube?*

*—Bai, lenago esan dogulez, euskodantza guztiak eta beren uzañekuak, ta aurrerantzian besterik esagutzen ba'dogu, alenginduko gara ikasten.*

*—Ederto Sabin, zulango euskaltzale zintzuak daukazan jantza-taldeak edonon lortuko dauz txalo berorik asko, erraz izango dabelako garalle urtetan. Zenbat erritan jantzatu dozube?*

*—Ezta erraza itaun orren erantzuna, toki ta erri askotan ibilligarelako, Euskalerri geyenan da batez-bere Gipuzcoa'n, Lapurdi, Bubero ta, zetan esanbez, Bizkai guztian.*

*—Eta Euskalerri'tik at edo kanpuan?*

*—Bai, Santander, Torrelavega ta abar.*

*—Urren atserri'rako urterarik?*

*—Laster juan biar-gara Frantzi'ko Burdeos ta ba'litzake Paris'era-be. Eta España aldian ta-litzake Zaragoza'ra juatia.*

*—Enaiz beste itaunik gogoratutzen. ZERUKO ARGIA'n argitaldutzeko emon daustazun argazkia, non aterakuada?*

*—Orain aldi gitxi dala Ondarru'n izangiñan talde guztia Agirre'tar Domeka zanaren omenez egin ziran jayetan ta, gure albokarijari atera leutsiena.*

*Era asko dagoz norberan erria ta beren izena goraldutzeko eta ainbat obeto bide zuzen ta oitura garbiekaz ba'da. Orretarako zein bide eder ta alayagorik gure loi-gabeko euzkojantzak baño? Jarraitu-ba Sabin da «Andra-Mari»'ko guztiok bide oietatik, euskaltzale benetakuan ezkerrak noz edo noz artuko dozubez-da.*

## Lenengo saritaz...

**Urritizkiñez deitu dit Lore'k, esanaz:**

**—Zorionak, Garbiñe!**

**—Eskerrik asko... bañan...**

**Eta "bañan" orren atzetik esan diotena "ZERUKO ARGIA"ren irakurleei azaldu nai nieke:**

**Asteroko ontan, berri nastuak artu dituzte Aurren Txapelketaz. Arri arrituta gelditu naiz "Bigarren saria" eta "Irugarren saria" izki aundi aundiz jarrita ikusi dedanean. Ez, jaun-andreak, ez! Nere lagun Agirre'tar Xabier'rek eta Busto'tar Iñigok", Lenengo Saria" irabazi zuten, ni bezel-bezela. Aiek, ez ziran gelditu nere ondoren txapelketan. Ez orixe! Irurok batera, lenengo saria irabazi genula, esan zuten epailleak.**

**Aundiak ere, nunbait, gu txikiok bezela, nastutzen dira batzutan... Ala ez da, Iñigo ta Xabier?**

**Lore: deitu urrutizkiñez, arren, nere lagun oiek eta esaiezu nere bezela: "ZORIONAK"!**

**A Eta, txikien saillean, Agirre'tar Ramon'ek eta Nabarro'tar Mari Korok, lenengo saria irabazi zutela, ez al genuke azaldu bear?**

Gauza batean gauza bi, Usain gozoa ta garbi: «Colonial» lexibak dauka Bakarrik birtute ori. Bizkayan bera nagusi Usain gozoaz ain garbi.
**«LEJIA COLONIAL»**
**izena**
**Ta egillea: AZUMENDI**
**«LEJIA COLONIAL»**
Novia Salcedo, 21
**BILBAO**

**ALVAREZ**
Elkano, 7.— DONOSTIA
Ikasleentzako esku-zorro ta maletak
Aterkiak
Jazteko ta erosketarako poltsak
Drogeri, Usai gozoko ta Bisuteria-salgaiak

**OIAL BIKAIN BERRI**
**ERAKUSTEGIA**
**ALDAMAR**
**Zuzenbidea: Aldamar, 2**
(Reina Regente ertzean)
Urrutizkiña 1-54-65
**DONOSTIA**

# PERALTA'N DEGU

## ABELGORRIEN IKULLURIK BERRIENA



Pozik aitatzen degu gaur, Peralta'n, Naparroa'ko lurretan, egiña duten ganadu-ikullu berria. Onen antzeko zerbait bear bai-dute beste Naparroa'ko erriak ere, andik bertako semeak lan - billa kanpora irten bearrik izan ez dezaten. Negargarria da nola urtetan erri askotako gazteriak erritik kanpora irten bearra izan duan bizimodua ta lana arkitzeko.

Ganaduak dirua ta irabazia sortu dezaten berrogei bat ganadukin asi bear da lan egiten; eta eun abelgorri bildu ezkero ikulluan, oraindik geiago iristen da irabazia. Beste aldetik kooperatiba edo alkartasunak ondoren oso onak ekarri dizkigu leku askotan. Beraz, pamili batek bakarrik, orrenbeste ganadu erosteko ta gobernatzeko gauza ezpada, beste erriko pamiliekin alkartuta asko egin dezake.

Ikustekoa da Peralta'ko ganadutegi berri au! Bi gauzari begiratu bearra dago, onelako lanetan irabazia sortzeko: makiñen bidez lana egitea ta garbitasunik aundiena gordetzea ikullu barruan. Peraltako onetan, azkeneko aurrerapenak jarri dira, Europa ta mundu guzikoen maillan jarrita gauza guziak. Naparroa'n berau bakarrik degu abelgorritegi diplomatutik. Eta negargarria da benetan; Naparroa'n, izan ere, onelako ganadutegi diplomatuak asko ta asko sortu bear bai-lirake.

Ikulluak berritzeari ain daude lotuak San Jose Torrean (onela bai-du izena ganadutegi onek), ez dira paketzen azkeneko aurrerapenak eskuratu arte. Onela, orain bi urte egindako ikulluaren ordez, beste berriago bat jaso dute, eun metro luze ta ogei ta amar metro zabalean dituana. Ta guzia,, lantegi bat bezela begiratzen da emen, azkeneraiño ondo neurtuaz, lanaren eta erosi bear diran janari ta gauza guzien gastua. Makiñekin, egundoko laburpena ta merkatzea iristen da lanean. Aitatzekoa da ogei ta amar ganadu nola lotzen diran batbatean, banaka ibilli bearrik gabe lotzen.

Baiña garbitasunean egiten da aurrerapenik aundiena ta lana erreztea ta merkatzea. Ontarako lastoa ta superfosfatoak erabiltzen dira. Ikusi gabe ez da errez sinisten. Esate baterako: Ba-dira ganadutegi orretan lau illabetean simaurrik atera ez diran ikulluak, eta ala ere ikustekoak dira nolako garbi ta txukun agiri diran an bizi diran eun txal! Orregatik, gure ganadu zaleak sarri ikusi bear luteke abelgorritegi au. Nola iristen dute onelako garbitasuna? Oso errez. Egunero ganadu-azpia lastoz eta superfosfatoz ornitzen dute. Gaiñera kontu artzen zaie ganaduei, aska baiño atzeratxoago etzan ditezen. Besterik gabe, abergorri guziak egunero garbituta bezela agertzen dira.

Ze alde degoen ontan obeto ikusteko, ba-ditu ganadutegi onek ikullu batzuek ganaduak lotuta dauzkatenak. Auetan egunero goiz eta gabetan ganaduak garbitu egin bear izaten dira ta egunero simaurra atera bear gaiñera. Era berriko ikulluetan, eztago ez ganadua zepillatu bearrik ez beste simaurrik atera bearrik. Urtean bi aldiz bakarrik garbitasuna egin eta naikoa da.

Esnea jeisteko lekuak, klinika bat dirudi bere baldosa txuriekin lurra duala. Emen artzen dute beiak beren pentsu nastua, makiñen bidez bakoitzari emana. Leku onetan bost gizon daude berreun da berrogei ta amar beiren esnea eraxteko. Leku onetan musika gozoa aditzen da. Aritzekoa da nola laguntzen dien beiei esne geiago ematen soiñu paketsu batek. Trumoia danean eta zarata gogorrak, berriz, esnea ematea gutxitu egiten die. Sorginkeria dirudi, baiña egia da.

Ganadutegi au osatzeko, umegintza-sala bat jasoko da ogei ta bat beirentzako laingoa ta jaio berri diran eun da zortzi txalentzako beste egon-leku bat ere bai. Onela iritxi da Abelgorritegi au, ez Espaiñia'ko bakarrik, ezpada Europa'ko onenetakoa izatea. Erakutsi ederra Naparroa'ko beste erri askorentzat. Onela iritxi bai-dezakete lan-bidea bertako seme askorentzat, erriak ustu ez ditezen.

Baztan, Ultzama, Basaburu, Saraitsu, Imotz, Atez, Aezkoa ta beste baillera askok, auxe izango luteke beren bizimodua ontzeko biderik erosoena. Erri guziko ganadua batean gordeaz, ortarako ikullu berriak jasoko, ba-lira erri oietan, mesede ederra ta irabazpide sendoa sortuko litzake alde guzietan. Ori egin ezik, erriak ustutzea ta bertako gazteria kanpora joaten ikusi bearra besterik ez degu etorkizunerako. Ordua da neurriak azkar eta zeatz artzeko. Erakutsia begien aurrean degu. Bidea ikusia dago. Jarraitzaille asko ta asko izan ditzala Brun jaunak, Peralta'ko ganadutegi onen jabeak.

GURE KONTSEJUA DA
ZOAZ Anjelita Martinez'enera
BITXITEGIA
Au da euskaldunen etxea. Bertan arkituko dituzu salgai merkeak eta balio ta iraupen aundikoak.
Plaza de Guipúzcoa, 11 SAN SEBASTIAN



"ZERUKO ARGIA" - Oquendo, 22 - SAN SEBASTIAN
FRANQUEO CONCERTADO N.º 3/ 21